



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO URTARRILAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko urtarrilaren 31n, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Santos Etxegia, M^a Mar Ansorena, Julen Beunza eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abenduaren 29ko ohiko batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta baina txertatuz zuzenketa bat ostalariekin egin zen hitzarmena jartzen duen tokian ostalariekin egin zen ikastaroa jarritz.

2.- Alkate ebazpenak

-2023/1 alkate ebazpena baimena emanaz Ultzama aldeko gizarte zerbitzuen mankomunitateari Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko urtarrilaren 13an, ostirala, 16:30etatik 19:30etara, hitzaldi bat egiteko.

-2023/2 alkate ebazpena onartuz Jose Cruz Biurrarena Barrenecheak aurkeztutako aitorten arduratsua eta memoria teknikoa, Itsasoko 4. Poligonoko 94. Lursailean dagoen etxeako teilatuan eguzki plakak jartzeko 4.619,18 euroko aurrekontuarekin.

-2023/3 alkate ebazpena onartuz Javier Jaunarena Ezcurrari aurkeztutako aitopen arduratsua eta memoria teknikoa , Erbitiko 7. Poligonoko 185. Lursailean dagoen etxeako teilatuan eguzki plakak jartzeko 2415 euroko aurrekontuarekin.

-2023/4 alkate ebazpena obra baimena ematea Telefonica de España SAU-ri, Aizarozko Igoabide kalean dauden 6 zutoi eta 2 riostra aldatzeko eta 2 riostra berri jartzeko.

2023/5 alkate ebazpena obra baimena ematea Telefonica de España SAU-ri Itsasotik lhabenera doan errepidean 6 zutoi eta 3 riostra aldatzeko eta 3 riostra berri jartzeko.

-2023/6 alkate ebazpena baimena emanaz Aizarozko bizilagunei (Eneko Iurramendi Aleman izanik hauen ordekarria) Aizarozko herrikoetxeke gela haundia erabiltzekoa, urtarrilaren 14an, txerriak hil ondoren puskatzeko lanak egiteko.

-2023/7 alkate ebazpena onartuz Prebencion Ezkabak bidalitako S-14001 zenbakidun aurrekontua, udal eraikinetan dauden suteen aurkako argi eta seinaleak arautegira egokitzeko.

-2023/8 alkate ebazpena onartuz M^a Jesus Mancho Goicoak aurkeztutako aitopen arduratsua, Erbitiko 7. Poligonoko 129. Lursailean dagoen etxeke teilatuan eguzki plakak jartzeko 5.266,16 euroko aurrekontuarekin.

-2023/9 alkate ebazpena baimena emanaz Iker Fernandez Palaciori, urtarrilaren 19an, goizeko 11etatik 13etara Aizarozko Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko, antzerki entsegu bat egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2022/1 eta 2022/2 aurrekontu aldaketak. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du 2022 urteko aurrekontuaren 1 eta 2 aldaketak azaroaren 30eko batzarrean onartu ziren eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu abenduaren 19an.1990/6 Toki Administrazioako foru legearen 271. Artikulua jarraituz jende aurrekoa epean egon da espedientea 15 egun baliodunez eta ez da alegaziorik aurkeztu, hortaz behin betiko onespena eman behar zaie bi aurrekontu aldaketei.

2022/1 aurrekontu aldaketa: Eskolako langileen ordainsarien poltsaren soberakina ez da iritsiko urte bukaera arte sartu beharreko gastuetarako, kontutan hartuta urteko soldata igoera sartu behar dela eta hau azaroko nominan sartuko dela indarrean.

Hortaz proposamena da 0-3 eskolako hezitzaileen ordainsarien partidaren aurreikuspena handitzea 4500 euroekin. Aurrekontu aldaketa hau, aurrekontuaren aurreikuspen orokorrak aldatu gabe, kreditu transferentzia bidez egitea proposatzen da 1995/270 Foru Dekretuaren 41. Artikuluaren arabera.

Kreditu transferentzia egiteko erabiliko da 1.5.6 poltsa bertan nahiko soberakin dagoelako, poltsa horretan dago industrial guneko urbanizaziorako gastuen partida 254000 euroko aurreikuspenarekin

2022/2 aurrekontu aldaketa. Aurrekontu aldaketa hau osasun programen partidak eskatzen du, bertan sartzen dira bai osasun programan sartutako gastuak bai aktibatu programarenak eta hortaz kontutan hartuta hilabeteko programa horren kostea 700 euro ingurukoa dela, gainera ere zahartze aktiborako programaren gastua hots, adinduen gimnasia elementuak ere sartu beharra dagoela (6800 euro inguru), gehi 715 euro ume eta nerabeen osasun programarenak, guztira 10.500 euroko ekarpena beharko luke abendua arte partida horren aurreikuspenak ez gainditzeko.

Aurreko aurrekontu aldaketa bezala aurrekontu orokorraren aurreikuspena ukitu gabe, kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa egitea proposatzen da lehen aipatutako partida erabiliz, bertan soberakina baitago.

Hortaz bildutakoek aho batez 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 271. Artikulua jarraituz behin betiko onespena ematen diete 2022/1 eta 2022/2 aurrekontu aldaketei eta erabaki hau modu xehetuan argitaratua izan dadin agintzen dute.

4.- 2022. Urteko plantilla organikoa.

Alkateak azaltzen du 2022ko azaroaren 30eko batzarrak onartu zuela hasiera batez 2022. Urteko plantilla organikoa zuzenketa batzuekin.

1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 235, artikulua jarraituz erabaki hau jendea urteko epean egon da 15 egun baliodunen epean alegazioak aurkezteko aukera irekiaz iragarkia 2022koa abenduaren 19ko Nafarroako Aldizkari argitaratu ondoren. Epe honetan alegazioak ez direnez aurkeztu behin betiko onespena eman ahal zaio plantillari, modu honetan geldituko zela azaltzen du alkateak:

2022KO PLANTILLA ORGANIKOA

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jarduncan
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2	Hutsik

					ahozkoa	
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	E	Oposizio lehiaketa		B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%87,50

LAN KONTRATUDUN MUGAGABEA EZ FINKOA

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011/11/01	%12, %42	Jardunean	%100

ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12	Jardunean	%55
Maite Sanchez Lasterra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/04/01	%46,37	Jardunean	%60,5
Cristina De los Reyes Ayerra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/11/08	%25,74	Jardunean	%60,5

M ^a Paz Echarri Echeagua	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	E	2017/11/02		Jardunean	%75,34
Aintzane Andueza Zabalo	Haur eskolako hezitzailea	C	2021/08/23		Jardunean	%100
Aitziber Aizpurua Torres	Haur eskolako hezitzailea	C	2021/11/12		Jardunean	%34,2
<u>LAN KONTRATUDUN MUGAGABEAK</u>						
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28		Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12 M	Jardunean	%100

Hortaz bildutakoek aho batez 1990/6 Nafarroako Toki Administrazio Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz behin betiko onespena ematen zaio 2022ko plantilla organikoari eta modu xehetuan argitaratua izan dadin agintzen dute.

5.- Aizarozko soroen errentaren esleipena 2022-2027.

Alkateak azaltzen du abenduko batzarrean onartu zela esleipena arautuko zuen baldintza plegua eta epea ireki zen proposamenak aurkezteko, Nafarroako Kontratazio Portalean argitaratu ondoren.

Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 20an bukatu zen eta proposamena bakarra aurkeztu. Urtarrilaren 20an ireki zen proposamen hau eta akta jaso, behin behineko onartuz esleipena proposamen bakar horren alde

Esleipenduna Pedro Urriza Huarte izan zen, eta proposamen ekonomikoa 2.751 eurokoa urteko.

1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 229. Artikulua jarraituz eta sexta epea bukatu denez, esleipena behin betikoz onartu eta kontratua sinatzeko alkate ahalduntzea erabakia hartu behar du batzarrak.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Aizarozko soroen errentaren esleipena (Basaburuko udalak 2022ko abenduaren 30ean onartutako baldintza pleguaren arabera), Pedro Urriza Huarte 72675332R NAN zenbakidunaren alde egitea, urteko errenta proposamena 2.751 eurokoa izango dela onartuz.

- Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea.
- Esther Lacasta Basaburuko udaleko alkatea ahalduntzea errenta arautuko duen kontratua sinatzeko.

6.- Arrarasko kontzejuarekin sinatu beharreko hitzarmenaren onespena. 2021. urteko abenduan kaltetutako azpiegituren obra eta laguntzaren ingurukoa.

Alkateak azaldu eta irakurtzen du Arrarasko kontzejuarekin sinatu behar den hitzarmena. Hitzarmen honen oinarria da, 2021ekoa abenduan izan ziren kalteak konpontzeko laguntzak bai estatutik bai Nafar Gobernutik jaso direnez bien kudeaketa egitea estatuak laguntza udalei onartu dielako eta ez kontzejuei, eta horrekin lotuta ere obra udalek esleitu behar dutelako. Gainera Nafar Gobernuak jada berari dagokion laguntzaren zati bat ordaindu dionez kontzejuari, honek udalari itzuli beharko dio diru hori eta obra bukaeran kontuan egingo dira hitzarmenean zehazten den moduan.

Irakurrita hitzarmena eta kontutan hartuta 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioko Foru Legearen 364 artikulua baita, onartzen dute bildutakoek aho batez Arrarasko kontzejuarekin sinatu beharreko hitzarmena eta ahaldundu Basaburuko alkatea den Esther Lacastari hitzarmena sinatzeko.

7.- Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako hirigintza hitzarmenaren onespena.

Alkateak azaltzen du hirigintzan aztertu dela hitzarmena hau, aipatutako lursailean etxe egikaritzeko hitzarmen urbanistikoa bat sinatu behar zen aparkaleku eta kalea zabaltzeko zehaztasun arautzen duena.

Hitzarmen urbanistikoa izanik 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 25 artikulua zehazten duen tramitazioa egin behar da eta hortaz bildutakoek hasiera batez onartzen dute hitzarmena eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute eta ahaldundu Basaburuko alkatea den Esther Lacastari hitzarmena sinatzea prozedura bukatzean.

Gai zerrendatik kanpo ogasun batzordean aztertu ondoren haur eskolako langileen soldaten egokitzapena onartzeko gaia, batzarrean sartzea onartzen dute aho bate bildutako guztiek:

Ttikiena 0-3 haur eskolako langileen soldaten egokitzapena.

Alkateak adierazten du, Ogasun Batzordean azaldu bezala, Nafar Gobernuak onartu ditu haur eskola guztietako langileentzako ordainsariak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo direnak.

Ttikienako langileen ordainsariak egokitzeko gehigarriak finkatu beharko lirateke beraien nominetan, modu honetan; Zuzendariari, B mailan mantenduz %23.38ko gehigarria.

Hezitzaileei, C mailan mantenduz, egun duten %12ko mailari, beste gehigarri bat onartu %18,52

Garbitzailea D mailari dagokion soldata eta %8.35 eko gehigarria.

Soldata igoera hauek Nafar Gobernuak bere gain hartuko ditu bere osotasunean, horregatik bidali dute haur eskolak finantziatzeko adenda gehigarri bat 19.200 euro ingurukoa, ohiko ekarpenetatik hara. Udalak mantenduko du gastuen %24ko finantzaketa.

Hau kontutan hartuz, bildutakoek aho batez onartzen dute ondoren zehazten den erabakia:

-Ttikiena haur eskolako langileen ordainsariak egokitzea Nafar Gobernuak 2023ko urtarrilaren 1ean onartutakoetara.

-Hortaz onartu alde batetik Ttikiena haur eskolako zuzendariari B mailan mantenduz %23.38ko gehigarria, bestetik hezitzaileei, C mailan mantenduz, egun duten %12ko mailari, %18.52 lanpostu osagarria eta bukatzeko Ttikiena haur eskolako garbitzaileari D mailari dagokion soldata eta %8.35 eko gehigarria.

- Erabaki hau Ttikiena haur eskolako langileei eta Bidera aholkularitza elkarteari jakinarazi.

8.-Mozioa.

Alkateak irakurtzen du Torturen kontrako Nafarroako Saretik bidalitako mozioa, ondoren transkribatzen dena.

“2022ko otsailaren 12an, “Nafarroako Torturatuen Sarea” Elkartea sortu zen, Foru Komunitatean motibazio politikoagatik tratatu txarrak eta torturak jasan dituzten nafarrentzat egia erreklamazioan, aitortzan, erreparazioan eta ez errepikatzeko bermean beste urrats bat emateko helburuarekin. Elkarte hau torturatuen errolda egiten ari da eta gaur egun 1.000 kasu baino gehiago jaso dira, horietatik 8 udalerriri honetan. Elkarteak zabalduko datuen arabera, honako hauek erregistratu dira:

- 1.000 tortura-kasu baino gehiago.
- Jasandako torturen ondorioz hildako bi pertsona: Mikel Zabalza eta Antonio Goñi Igoa.
- Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatuari ezarritako zigorra Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatzeagatik.
- Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatuari ezarritako lau zigor, Nafarroako lau herritarren (Oihan Ataun, Javier Beortegi, Patxi Arratibel eta Iñigo Gonzalez) tortura salaketak ez ikertzeagatik.
- 2011. urteko txosten bat, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak egin, Nafarroako hiru pertsonaren torturen lekukotzari sinesgarritasuna

emanez.

- Gutxienez Nafarroako 101 herritan torturak eragina izan du. Azken urteotan, erakunde publikoak urratsak ematen ari dira kasu hauek argitzeko. 2019ko ekainean argitaratu zen "Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean izandako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua", Nafarroako Gobernuak Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI) eskatua. Bertan, ondorioen artean jasotzen da azterlana 1978tik hurrengo urteetara zabaltzeko beharra, Nafarroako torturaren eta tratu txarren benetako dimentsioa ulertzeko. 2021eko abenduaren 29an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Bizikidetzarako I. Plan Estrategikoa onartu zuen. Planaren lehenengo ardatzean Nafarroako Gobernuaren konpromisoa jasotzen da, "Nafarroako erakunde, politika, gizarte eta ekonomia baterako jardueretan Giza Eskubideak aplikatzeko mekanismoak indartzeko". 2022ko ekainean, Nafarroako Gobernuak Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI) eta beste hiru erakunderi esleipenaren berri eman zien, Nafarroan gertatutako urraketek buruzko txostenak egiteko eta zabaltzeko giza eskubideen arloan lan egiten duten ikerketa-zentro edo institutuei eta erakundeei dirulaguntzak emateko deialdian. Deialdia Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak bultzatu du, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Laguntza "Torturari eta beste tratu txar batzuei buruzko ikerketa Nafarroan 1979tik gaur egun arte", izeneko txostena egiteko izanen da. 2022ko uztailean, Foru-agindu bidez izendatu ziren Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordeko kideak aurreikusita dagoen "Martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legean, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko egintzengatik biktimak aitortzea eta erreparatzea", irailean eratzea aurreikusten dena. Jarduera hauek guztiek argi erakusten dute azken urteotan aurrerapausoak ematen ari direla giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsona guztiei egiaren, aitortzaren eta erreparazioaren bidean. Gizarteari zor diogu, etorkizuneko belaunaldiei, gertatutakoa argitzea, hori baita modurik eraginkorrena torturaren praktika desagerrarazteko.

Botere publikoek motibazio politikoko egintzek eragindako giza eskubideen urraketari buruzko egiaren ezagutzan, eta biktima hauen errekonozimenduan eta erreparazioan lagundu behar dugu. Horregatik, udalek eta toki-erakundeek ere urrats eraginkorrak eman behar ditugu egiaren aitortzan eta erreparazioan aurrera egiteko. Are gehiago, herritarren artean kalte hori pairatu duten pertsonak baldin badaude. Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:
EBAZPEN-PROPOSAMEN

- 1.- Basaburuako Udalak elkartasuna eta aitortza agertzen du torturaren eta tratu txarren biktima diren nafarrei, eta, bereziki, udalerrri honetako bizilagunei.
- 2.- Udalak bere konpromisoa adierazten du egiaren ezagutzan eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko.
- 3.- Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tortura eta tratu txarren praktika saihesteko eta ezabatzeko beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ditzala, ez errepikatzeko mekanismoak ezarri.
- 4.- Udalak ebazpen honen berri emanen die Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetzeta Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari, jakinaren gainean egon daitezen, eta onespeneren berri

emanen dio "Nafarroako Torturatuen Sarea" Elkarteari, helbide elektroniko honetan:
nts.harremanak@gmail.com

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

8- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek eta Ricardo Arangoak ematen dute informazioa.

Alde batetik Xabier Azpirozek azaltzen du Agenda 21eko laguntzetan Basaburuak bi proiektu aurkeztuko dituela, alde batetik eta gastu arrunten atalean, eskualde mailan adinduentzat bideratutako tailerrak burutuko dira eta bestetik inbertsioen alorrean, eta aurreko urtean hasitako proiektuari jarraituz, Basaburuko beste 7 herrietan jarriko dira adinduen iharduera fisikoak egiteko elementuak, parke bio osasungarriak bultzatzeko egitasmoaren baitan.

Gainera ere aipatutako laguntza lerroen barruan baina Mendialdeko eskualde mailan Basaburuko udalak parte hartuko du ere komunitate energetikoen informazioa zabaltzeko burutuko den programa batean.

Ricardo Arangoak ondoren zehazten informazioa ematen die bildutakoei:

Aurreko astean aktibazio sozioekonomikoaren inguruko bilera izan zen eta bertan zehaztu ziren ze atalekin egingo zen dinamizazioa eta zeintzuk izango ziren foroetan parte hartuko zutenak (udalak, enpresak.....)

Landuko diren atalak, industria, elikadura, ostalaritza eta merkataritza eta turismoa izango zirela aipatzen du. Foro hauek dinamizatzeko teknikariak kontratatzea proposatu zuen Cederna Garalurrek, behin Nafar Gobernuarekin hitz egin ondoren jakingo da zenbateko laguntza emango lukeen eta horren arabera aurreikusiko dira kontratazioak.

9- Informazio orokorra.

Ez dago.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:10 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.